## 6.14. FAXA

### 6.14.1. Definizioa

Aurkezpen-orri bat da, faxaren bidez bidali behar dugun agiri, txosten edo dena delakoari sarbidea ematen diona. Hartzailearen eta bidaltzailearen datuak, gutxien-gutxieneko, idatzi behar dira.

### 6.14.2. Idazteko irizpideak

Argi eta garbi azaldu behar dira jasotzailearen datuak, faxak helburu bakarra baitu: berari eta ez beste inori hel dakion bidaltzen duguna (dokumentua, argibidea…).

Hauek dira faxaren osagaiak:

- Orri-kopurua (azala barne) eta data.
- Hartzailearen datuak (beste pertsona batek bidali behar badu faxa, komenigarria da idaztea hartzailearen fax zenbakia).
- Bidaltzailearen datuak.
- Mezua (agurrak aukerakoak dira).
- Oin-oharra (jasotzerakoan arazorik balego guri deitzeko).





### 6.14.3. Eredua: faxa

IVAP

FAXA

Zenbat orri (hau barne) / Número de págs. (incluida ésta): 1 — Data / Fecha: 2005/11/10

**NORENTZAT/PARA**

| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | Erakundea / Organismo | Fax zk. / Fax |
|---|---|---|
| Andoni Pérez Etxarte | IVAPeko Azterlan eta Argitalpen Zerbitzua, Oñati | 943 783 177 |

**BIDALTZAILEA/DE PARTE DE**

| Izen-abizenak / Nombre y apellidos | Lantokia/Erakundea / Organismo | Fax zk. / Fax |
|---|---|---|
| Gotzone Urresti Aida | IVAPeko Euskalduntze Zerbitzua, Gasteiz | 945 017 603 |

**MEZUA/MENSAJE**

Kaixo, Andoni:

Badakizu estilo-liburua prestatzen ari garela eta martxoaren amaierarako-edo argitaratzeko asmoa dugula.

Hori horrela izanik, deitu lehenbailehen ISBNren zenbakia zein den jakinarazteko.

Eskerrik asko, aldez aurretik.

Orri guztiak jaso ez badituzu, deitu gure telefonora: 945 187 600
Si surgen problemas en la recepción, llame a este número